

KALITATEZKO GIZARTE BABESA BERMATU, ESKUIN MUTURRARI BIDEA MOZTEKO

Ezker eta eskuin aitzina doaz austeritate politikak, defizit publikoaren gutxitzea estakurutzat hartuta. Hortik doa azken urteetako gizarte babesaren ahultzea ere. Paraleloki, aurkako norabidean doa eskuin muturrak jasotako sostengua: gora, etenik gabe gorantza. Bi bilakaera horien arteko loturak aztertu ditu Olivier de Schutter NBERen giza eskubideen eta muturreko pobrezia txostengileak. Lerro hauetara ekarri ditugu urriaren 22an aurkezturiko txosteneko ideia nagusiak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Oihartzun guti ukan du Olivier de Schutter NBERen giza eskubideen eta muturreko pobrezia txostengilearen urriaren 22ko txostenak. *Le populisme d'extrême droite et l'avenir de la protection sociale* (eskuin muturreko populismoa eta gizarte babesaren geroa) izena jarri dio eta izenburuak dioena jorrazten du hogeitazko dokumentu horretan: azken urteetan bideraturiko gizarte babesaren ahultzeak eskuin muturrearen indartzea dakarrela. Bi fenomeno horien arteko loturak xeheki azaltzen ditu, gureaz gain, mundu mailako adibide zehatzetatik abiatuta.

Berez, ez da harrigarria isilean pasa izana txostengilearen ekarpena, hain justu, gobernuek harturiko eta sostengaturiko austeritate politikak ondorioztatu kalteen berri dakarrelako. 2026ko aurrekontua bozkatzekotan dira Frantziako Parlamentuan, eta heldu den urterako 30.000 milioi euroko ekonomiak aurreikusten ditu gobernuek -17.000 milioi gastu apaltzeekin eta 14.000 milioi diru-sarreraren emendiotik-. Inoiz ikusi gabeko austeritate politika bortitza, langile sindikatuen arabera. Testuinguru horretan, nola bideratuko diote arreta de Schutteri? Ez zaie komeni, eta nahiago dute aitzina

egin, eskuin muturreko populistei bazka emanda.

Bi osagaien arteko loturak ez bagaitu harriduraz hartu ere, interesgarria da txostenak dakarrena, bi fenomeno arteko ari delako: pobrezia areagotzeaz harago, zer dakar gizarte babesaren apaltzeak? Zein sentimendu pizten ditu hartzaileen baitan? Zein ondorio dakartza kohesio sozialari begira? Nola gorpuzten dira sentimendu horiek? Eta nolatan jasotzen ditu gaizki-izate horren fruituak eskuin muturrak?

Bigarren Mundu Gerraren biharamunean zutik jarritako gizarte babesa eta XXI. mende hastapen honetakoa ez dira





Behardunen arteko mailakatzea eta bazterketa ere badira gizarte babesaren ahultzearen ondorioen artean. Argazkian, eskale bat Donostian.

ALBERTO ELOSEGI

itxura berekoak, poliki-poliki joan delako ahultzen, neoliberalismoaren izenean. 1980ko hamarkadaz geroztik, austeritate politikek geroz eta leku gehiago hartu dute, gurean baina oro har mundu mailako herrialde gehienetan.

Norabide horretan, aldaketa batzuk ikusten dizkio gizarte babesaren banaketari: murrizketez gain, dagoen hori lortzeko baldintzetan dugu azken urteetako aldaketa. Batetik, laguntzak betebeharrak batzuei baldintzatuak dira; eta bestetik, kontrolak eta zigorrak ere areagotu egin dira. Adibidez, lan bilaketa aktiboan egonez gero jasotzen dira laguntzak eta lanpostu edota formakuntzak errefusatzeko horiek moztea

ekar dezake munduko estatu anitzetan. Horrek dakarrena begibistakoa da batean zein bestean: "Kalitate kaskarreko lanak onartzeraz behartuak dira, zigorra saihesteko gisan edozein lanpostu onartzen dute, finean, errefusatzeko edota formatzeko aukerarik ez dutelako", de Schutteren hitzetan.

Ondokoa irakurri dezakegu txostenean: "Mundu distopiko baten garapenean gaude, zeinetan gizarte-laguntzak zainketa handiagoa, kontrolak eta paternalismo forma bat dituen ezaugarri; babes sozialeko sistema bat zeinetan herritar zaurgarriak kontrolatuak eta 'zuzendu' beharreko elementu gisa ikusiak diren, eta ez lagundu beharrekotzat".

ZAURGARRITASUNA GORA

Ikuspegi kontable murrizketatik begiratu, lan ordu kopuruak eta soldata bidezko diru sarrerak emendatzen badira ere, albo-kalte andana dakartza baldintzapeko babesak. Horra *Eskuin muturreko populismoa eta gizarte babesaren geroa* txostenean zerrendaturikoak: pertsona prekarioenak zaurgarriago bihurtzen dira; laguntza-eskatzaileen estigmatizazio handiagoa eta depresio zein antsietate kasuen emendioa. Baina, kolektiboan ere bere ondorioak ditu. Batetik, gizarte babesa dutenek geroz eta denbora eta energia gutiago dute sozialki inplikatzeko, baita politikoki ere. Bestetik, de

**“Chauvismo soziala
barne-talde nazionalako
kideei gizarte babesa
erreserbatzean datza, besteak
baztertuz: migratzaileak,
baita herrialdean urte
anitz daramatzaten arren,
herritartasuna ez duten
gutxiengo etnikoetako
kideak ere”**

Olivier de Schutter



DE SCHUTTER Argazkian, Olivier de Schutter, NBEren giza eskubideen eta muturreko pobrezia-
ren txostengilea. Urriaren 22an plazaratu du *Eskuin muturreko populismoa eta gizarte babesaren geroa*
izeneko txostena.

Schutteren hitzetan, "ahulezia pertsonal gisa ikusia da pobrezia, ez eta gizartearen erantzukizun bezala; eta babes soziala, berriz, Estatuak komeni zaion bezala banatzen duen mesede gisa, eta ez eskubide gisa".

Finean, txostengileak azaltzen duen gisara, oinarrian bizi pertsonala eta enplegua kualitatiboki bideratu ahal izateko planteatuta zegoen gizarte babesa, "enplegu ezegoki batera inor ez behartzeko, eta inor ez egoteko etxeko bete-beharrek edota bizitzako gorabeherak ondorioztatu zaurgarritasun egoeran". Baina "lana-bizitza-babes soziala" hirukia iraganean galduta dago geroz eta gehiago, ikuspegi kontablea nagusitu zaiolako.

Eta hori guztitik irabaziak ateratzen dabilta eskuin muturreko populistak. Hor ere, ez dago bide bakarra: instituzioekiko mesfidantza, pobreen arteko zatiketa, klase sozial apalago batera jaisteko beldurra zein kondeszendentsiaz ala errespetu-faltaz tratatua izatearen sententzia, eskuin muturrera jotzeko azalpen bat baino gehiago zerrendatzen dira txostenean.

ESKUIN MUTURRAREN XARMATZEKO AHALA

Gizarte babesa eskubide bat izan beharrean "merezitutako" lorpena denaren ikuskerak dakar instituzioekiko urruntasun eta mesfidantza. Abandonatua izana-

ren sentimendua puzten dielako egoerak. Bere aldetik, aldarte hori identifikatuta, beraiekiko hurbil dagoenaren diskurtsoa landurik du eskuin muturrak. "Testuiguru horretan, eskuin muturreko populistek 'jende arruntaren' ordezkari baitlitzen bezala dabilta, 'eliteen' aitzinean kokatuta", irakurri daiteke txostenean. Nabardura gisa, ondokoa gehitzen du txostengileak: "Hala ere, anitzetan, eura dira elitearen parte, eta euren igoera politikoa familiaren aberastasunari edo harreman sozialei zor diete. Behin auke-ratuta, euren diskurtsoetan gutxiensten duten elite ekonomiko horren pribilegioei eusteko lan egiteko joera dute". Eta boterera helduz gero, gizarte babesa ez dute eskubide bihurtzen: "Probidentzia Estatuak desegin ez arren, desnaturalizatzen dute. Babesetik diziplinara salto egiten dute, *produzerismoaren* sinesmenean sakonduz, hau da, ekonomiari ekarpenak egiten dabiltzanek bakarrik dutela babesa merezitua", de Schutteren hitzetan.

Abandonu sentimendu hori lurralde-ka nabari dela dio de Schutterrek: "Es-kura dagoen dokumentazioak agerian uzten du eskuin muturra aurrera doala jendea abandonatuta sentitzen den lekuetan, batez ere landa eremuetan, zer-bitzu publiko gutxiago, interneterako konexio eskasa edota administrazioak falta diren lurraldeetan", irakurri daiteke *Mediapart*-i eskainitako elkarrizketan. Gainera, agerian gelditzen da ere gero eta

sozializatzeko aukera gutiago egon, orduan eta handiagoa dela eskuin muturrak duen babesa.

**“Mundu distopiko baten
garapenean gaude, zeinetan
gizarte-laguntzak zainketa
handiagoa, kontrolak eta
paternalismo forma bat dituen
ezaugarri”**

Olivier de Schutter

Behardunen arteko mailakatzeta eta bazterketa bada ere gizarte babesaren ahultzearen ondorioetako bat; eta nola ez, eskuin muturrak hauspotzen duena. "Chauvinismo soziala" terminoarekin azaltzen da fenomeno txostenean: "Chauvinismo soziala barne-talde nazionalako kideei gizarte babesa erreserbatzean datza, besteak baztertuz: mi-



GEDAR



WIKIMEDIA

APOROFOBIA Gizarte babesaren beherakadak eskuin muturraren gorakada dakar, eta horrekin batera zabaltzen da aporofobia, hau da, pobreekiko fobia. Donostiako Afari Solidarioen aurkako mobilizazioetan nabaria izan zen hori.

gratzaileak, eta, batzuetan, herrialdean urte asko daramatzaten arren, herritartasuna ez duten gutxiengo etnikoetako kideak". Merituaren ideiak bere fruituak ekarrita, jatorriagatik bazterturiko horiei gehitzen zaizkie lanik aurkitzen ez duten langabetuak, "alfer" eta "jendarteko parasito" gisa ikusiak direnak. Horrek dakarren "aporofobia" edo pobreekiko fobia azpimarratzeko tarte hartzen du de Schutterek. Baina finean, mailakatzeko hori dator klase sozial apalago batera erortzeko beldurretik ere: "Ezberdintasun sozialak direla eta, gizartetik bazter utziak izateko beldurra geroz eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izanen da talde kidetasunean bilatu kontsolemendua". Hain justu, ondokoa "konkurrente" gisa ikusia da, zangopilatu beharrekotzat. Horretarako besteareki-

ko mespretxua, eskuin muturrak ederki bideraturikoa.

Emozioekin jokatzeko dabil eskuin muturra: "Eskuin muturreko arduradun politikoak erresumina fabrikatzen ari dira. Emozioetatik dabilta: aberriaren maitasuna, atzerritarrekiko beldurra eta nazioaren ongi-izatea arriskuan jartzeaz akusatutako elite ustelekiko haserre pizten dute. 'Urdurituta dauden herritarrak' sortzen dituzte, eta funtsean, beldur horiek, neurri batean, emozioen instrumentalizazioaren ondorio dira". De Schutterek dioenez, sentimendu horiek ez dira baitezpada irrazionalak, segurtasun-gabezia ekonomikoak eta errespetu falta jasotzearen sentsazioak dakar hori. Eta, hain justu, horiek badira gizarte babesaren azken urteetako bilakaerak ondorioztaturiko bizipenak.

Azkenik, instituzioen laguntzak bide numerikotik -eta algoritmoen kontrolerik- eskatu eta bideratu beharrak ez du egoera hobetzen: "Gizabanakoak estigmatizatuta eta kontrolatuta sentitzen dira, eta ez babestuta. Horrek herritarren alienazioa bultzatzen du, beren pobrezia-eraginaren beharrez seinalatuak eta duintasunik gabe sentitzen baitira. Eta egoerari etekina ateratzen diotenak eskuin muturreko populistak dira".

Finean, oinarritik begirada aldatu beharra azpimarratzen du txostenaren bukaeran: gizarte babesa kostu gisa ikusi beharrean, inbertsio sozial gisa sailkatzea. Eta nola ez, argi ukatea gizarte babesaren gaia ez dela arlo sozialari mugatzen, oinarria zein helmuga politikoak dituen gai oso politiko bat delako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



AHLEM

